

1974ko abenduko euskal borroka-egunak

Daniel Escribano

Frankismo amaierako aldiaren erregimenaren aurka Euskal Herrian egindako protestaren mugari ditugu 1974ko abenduko mobilizazioak, bai parte hartu zuten lagun-kopuruarengatik, baita euren izaera antifrankista modu agerian adierazi zutelako ere.

Otsailaren 12an Espainiako Erresumako Gorteetan Carlos Arias Navarro gobernuko presidentek iragarritako zabaltze-saioaren porrot gero eta agerikoagoa zen abagune politikoaren ezaugarri nagusia. Hona hemen gobernuak adierazitako aperturismoa kolokan jartzen zuten adierazle nabarmenenak: gobernuak Antonio Añoveros Bilboko (Bizkaia) gotzaina Espainiatik kanporatzen saiatzea, elizbarrutiko parrokia gehienetan irakurritako homiliaren edukiarengatik; Salvador Puig Antich ekintzaile autonomoari ezarritako heriotza-zigorra exekutatzeko; Manuel Díez Alegría Goi Estatu Nagusiko burua kargugabetzea; Francok estatuburuaren ardura berriz hartzea, haren ondorengoa errege gisa behin-behinez aritu ostean; Pío Cabanillas Informazio eta Turismoarako ministroa kargugabetzea eta Antonio Barrera de Irimo Ogasuneko arduradunak dimisioa ematea, Cabanillasekin elkartasunez, eta etorkizuneko «elkarte politikoak» Movimientoko Kontseilu Nazionalaren jurisdikzio pean jartzea, abenduaren 24ko 7/1974 Lege Dekretuak xedatutakoari jarraiki, prentsa erreformistak defendatutakoari eta irailaren 10ean presidentek berak adierazitakoari muzin eginik.

Langile-mugimenduaren ikuspegitik, ondokoak izan ziren 1974ko hasieraren ezaugarriak behinenak: hitzarmen kolektiboen bidezko soldata-igoerak inflazioaren Espainiako batez besteko zifra ofizialera mugatzea, 1973ko azaroaren 30ean Ministroen Kontseiluak hala erabakita; eta mobilizazioak moteltzea, 1973ko abenduaren 20an Luis Carrero Blanco gobernuko presidentearen aurka ETA V. Euskadi Ta Askatasuna V. Asanbladak egindako atentatuaren ondorioz. Izan ere, magnizidioak Euskal Herrian izan zituen ondorioetako bat hauxe izan zen: EAJ Euzko Alderdi Jeltzalea, PSOE Espainiako Alderdi Sozialista Langilea, PCE Euskadiko Alderdi Komunista eta UGT Langileen Batasun Orokorra errepresioaren aurka eta libertateen alde 1974ko urtarrilaren 15erako prestatzen ari ziren greba orokorra bertan behera uztea. Hala ere, Gipuzkoako Gobernu Zibilak nabarmenduko zuenez, «gobernu berriak bere jardura politikoei ekinikoan, zera ikusi da: subertsioaren gorakada orokorra, modu progresiboan, jarraituan eta ia etenik gabe gora egiteari utzi ez diona». Horrez gain, 1974ko abuztuaren 9an gobernuak aurreko urtean ezarritako soldata-mugak kentzeak ere greba gehiago ekarri zituen, urteko azken hiruhilekoan.

1974ko lehen seihilekoan Euskal Herrian izandako langile-mobilizazioen artean, ondokoak izan ziren ikusgarrienak: urtarrilaren 24an Irungo (Gipuzkoa) borroka-eguna, Laminaciones de Lesacac Lesakan (Nafarroa) zuen lantegiko langileekiko elkartasunez, eta, batik bat, ekainean Tolosan (Gipuzkoa) egindako grebak, Winkler and Dünnebieerreko eta Irurako (Gipuzkoa)

Talleres Emua papergintzarako makina laguntzailea ekoizten zuen enpresako langileek euren aldarrikapenak aldezteko egindako lanuzteengatik enpresetako zuzendaritzek ezarritako kaleratzeetan eta zigorretan jatorria zutenak. Tolosako mobilizazioen ezaugarri nagusiak ondorengoak izan ziren: lanuzteak udalerriko beste enpresa batzuetara zabaltzea, langileen elkartasuna eta hainbat lantegitako langileek taxutu eta Tolosako CCOO Langileen Batzordeek sinatutako errebindikazio-taula komuna uztartuz; borrokan ari ziren lantegietako langileek batzar bateratuak egitea, eta manifestazioan ateratzea. Testuinguru horretan, poliziaren errepresioak eta atxilotetek greba orokorrera eraman zuten Tolosan, hilaren 10etik aurrera. Hilaren 11tik 13ra bitartean izan zuen oihartzunik handiena grebak, eta 14tik aurrera elkartasuna eta tokiko aldarrikapenak biltzen zituzten lanuzteak egin zituzten Gipuzkoako beste udalerririk batzuetan. Hilaren 25ean, grebak Tolosan apenas dozena erdi enpresatan jarraitzen zuela eta Talleres Emuako langileek lanera itzultzeko erabakia hartu berria zutela, haren zuzendaritzaren larderiazko jarrerak gatazka enkistatzea ekarri zuen, Antxon Zubeldia enpresako langileak kontatu bezala:

Aldagelan sartu ginen, batzarra egin genuen, eta lanera itzultzea erabaki. [...] Bat-batean, lanean hasiko ginela erabakitakoan, guk alde egin baino lehenago, Paco Arocena ugazaba eskaileretatik jaisten ari zela entzun genuen. Oihuka zetorren, zegoeneko. Etorri, eta zera esan zuen: «hona lan egitera etorri behar da; bestela, kale gorrira!». Horrela, hitz horiexekin. Abiatu ginen denok, eta «kale gorrira» joan, aurretik lanera bueltatzea erabakia bagenuen ere... Eman zigun amorrurengatik...

Testuinguru horretan, hilaren 27an, gauean, ETA V.eko Fronte Militarreko talde bat Francisco Arocena Talleres Emuako gerentearen eta akziodun nagusiaren etxean agertu zen, han zeudenak irtenarazi zituen, eta sua eman zion etxebizitzari. Uztailaren 1ean Arocenak berak iragarri zuen enpresako zuzendaritzak kaleratuak berriz hartzeko asmoa zuela, eta gauza bera egin zuen Winklerreko zuzendaritzak hilaren 8an, langile ororentzako %10eko soldata-igoera emateko konpromisoa hartzearekin batera. Langile kaleratuak zeuden gainerako enpresetan ere berriz onartuko zituztela iragarri zuten hango zuzendaritzek.

Urteko lehen seihilekoan Euskal Herrian gertatutako beste gatazka garrantzitsu bat Authi Automóviles de Turismo Hispano-Ingleses enpresak Landaben (Nafarroa) industriagunean zuen lantegikoa izan zen. Maiatzaren amaieran hitzarmen kolektiboaren negoziazioa zela-eta hasi ziren lanuzteak, eta uztailaren 2ra arte luzatu ziren. Enpresako epaimahaikideek zuzendaritzarekin eta Lan Ordezkaritzarekin hitzartu eta langileek asanbladan babestutako akordioak amaiera eman zion grebari. Bitartean, CCOOk greba orokorrerako deialdia egin zuen Iruñerrian ekainaren 15erako, Authiko langileekin elkartasunez, baina oihartzun mugatua jaso zuen. Bere luzaerarengatik, Burlatako (Nafarroa) Venancio Villanueva hesteki-enpresako gatazka ere bada aipatzekoa. Hiru hilabetez iraun zuen, eta soldata-igoera zekarren akordioari esker bukatu zen, abuztuaren 5ean.

Dena den, urteko gatazka gehienak azken hiruhilekoan gertatu ziren. Urriaren 9an, Nafarroako CCOOk sektoreen arteko taula prestatu zuen, eta enpresetako zuzendaritzek erantzuna emateko epe-muga azaroaren 20an jarri. Data hori baino egun batzuk lehenago hasi ziren lanuzteak enpresa batzuetan, eta abenduaren 10ean 10.000 langile inguru ari ziren greban, Nafarroan.

Bizkaian, irailetik azarora bitartean grebak izan ziren erreferentziazko zenbait lantegitan. Borroka horietan, batzarrean hautatutako batzordeak aritu ziren zuzendaritzekiko negoziaketan, dela beraiek bakarrik, dela enpresako epaimahaikideekin batera. Kasu gehienetan, kaleratzerik

gabe amaitu ziren gatazkak, eta Talleres Deustoko, Astilleros del Cadaguako, Grupo Mecánica de la Peñako eta Artiacheko auzietan soldata-igoerak ere lortu zituzten langileek.

Gipuzkoan, Pasaiaiko portualdean eta inguruko udalerrietan lanuzteak egin zituzten azaroan, greban ari ziren eskualdeko langileekiko elkertasunez, eta Erreterian greba orokorra ere egin zuten, hilaren 13an eta 14an. Prentsa antifrankistaren arabera, 3.500 langile inguruk hartu zuten parte Erreteriako greba orokorrean.

Espetxeetako protestak

Irailaz geroztik, protestak eta gose-greba egin zituzten zenbait espetxetako preso politikoez, tartean Torrero (Zaragoza), Basauriko (Bizkaia), Martuteneko (Donostia, Gipuzkoa), Iruñeko (Nafarroa), Carabanchelgo (Madril) eta Segoviako espetxeetakoek. Azaroaren 24an hainbat espetxetako ehundik gora preso politikok ekin zioten gose-grebari, amnistia eta iheslariak itzuli ahal izateko eskatzeko. Hilaren 29an, 40-50 bat lagunek itxialdia egin zuten Donostian jesuitek zeukaten elizan, presoen protestarekin bat eginez. Poliziak kanporatu egin zituen, eta Emilio Rodríguez Román Gipuzkoako gobernadore zibilak isunak jarri zizkien. Hilaren 30ean, Bilboko San Anton parrokian egin zuten itxialdia 500 lagun inguruk, biharamunean atera ziren talde txikika, eta poliziak kanporatu egin zituen elizan geratzen zirenak (25 bat).

Abenduaren 2ko eta 3ko borroka-egunak

Testuinguru horretan, ETApn Euskadi Ta Askatasuna (politiko militarra), LAIA Langile Abertzale Iraultzaileen Alderdiak, Bizkaiko Langile Fronteak eta Gipuzkoako Langile Komiteek, ETA (VI)-LCR Euskadi Ta Askatasuna VI. Asanblada-Liga Komunista Iraultzailearen babesarekin, greba orokorrerako deia egin zuten, abenduaren 2rako eta 3rako, Hego Euskal Herri osoan. Deialdiak, ordea, apenas izan zuen oihartzunik Gipuzkoatik kanpo. Donostiako elizbarrutiko Gizarte Idazkaritzako txostenaren arabera, hilaren 2an 3.500 langile inguruk egin zuten greba Lasarten eta Usurbilen, eta lanuztea «ia masiboa» izan zen Goierriko industria-arloan, eta «garrantzitsua», Erreterian-Pasaia aldean. Horrez gain, manifestazioak egin zituzten Donostian, Eibarren, Hernanin, Ordizian eta Usurbilen, eta polizia, erruz hedatu zena, oldartu egin zitzaion. *Cambio 16* legezko astekari demokratikoaren zenbaketaren arabera, 20.000 langilek egin zuten greba Gipuzkoan, egun horretan. Hilaren 3an, elizbarrutiaren txosteneko datuen arabera, 20.000 langile inguru batu zitzaizkion protestari Gipuzkoan. Bere urteko txostenean, ondoko datu hauek eman zituen Gobernu Zibilak: 117 enpresatan lanuzteak egin zituzten, eta Goierriko hiru udalerrri nagusietan (Ordizian, Beasainen eta Lazkaon) saltokiak itxi egin zituzten. Horrez gain, Hernaniko eta Lasarteko «lantegi batzuetako» lanuzteen berri ere eman zuten legezko egunkariak, baita ondokoa jakinarazi ere: Pasaian eta Erreterian zeuden «lanez besteko lanuzte-egoerek» euren horretan jarraitzen zutela. Gobernu Zibilak Donostian, Hernanin, Arrasaten, Eibarren eta Ordizian «manifestazio-saioak» egon zirela ere jaso zuen. Haren urteko txosteneko interpretazioaren arabera, «harrera onargarria jaso zuen» Gipuzkoan bi eguneko borrokaldi horrek, «batez ere probintziako eskualde batzuetan, eta horrek [antolatzaileek] masen baitan errotze-maila handia dutela erakusten du».

Abenduaren 11ko greba orokorra

Oihartzun askoz handiagoa izango zuen hilaren 11ko borroka-egunak. Ekainaren 16an CCOOko Koordinakunde Orokorrak zabalduko agirian, bere batzorde exekutiboaren bileraren berri eman zuenean, zera zuen adierazia: lurralde-ordezkariek batzuek 24 orduko greba orokorra antolatzea proposatu zutela. Deialdiaren leloek ondokoak izan beharko zuten: «bizitzaren garestitzearen aurka, soldatak igotzearen alde, errepresioaren aurka eta amnistiaren eta askatasun demokratikoen alde». Kataluniako eta Gipuzkoako ordezkariak defendatu omen zuten bereziki proposamena, eta Koordinakunde Orokorrak adierazi zuen «ekintza orokortua egitea posible dela», baldin eta «masen eremurik zabalenean» antolatuko balitz, «langile-mugimenduan antolatutako korrante guztiekin, batik bat UGTekin eta USOekin, eztabaida bateratua eginda», eta «nekazariak, unibertsitateko eta irakaskuntza ertaineko ikasleak» eta «gizarteko beste indar batzuk» erakarrita. Alabaina, uztailearen 30ean JDE Espainiako Junta Demokratikoa aurkeztu zen, Parisen eskainitako prentsurrekoan. Erakunde horren partaideen artean Rafael Calvo Serer monarkiko joanista zegoen; JDEren adierazpen programatikoa bazterrean uzten zituen oposizio antifrankistaren oinarriko errebindikazioak (Euskal Herrian berebiziko garrantzia zutenak, hala nola Espainiako Estatuko herrien autodeterminazio-eskubidearen onarpena), eta *burgesia ez monopolista* zeritzonarentzat ere kaltegarritzat jotzen zuen erregimen frankistak irauteak. JDE PCE Espainiako Alderdi Komunistak bultzatutako erakundea izanik, zera interpretatu zuten talde antifrankista gehienek: JDEren bidez, PCEk elite ekonomikoekin adostu nahi zuela erregimena ordeztea, haien klase-interesak arriskuan jarri gabe.

ORT Lanaren Erakunde Iraultzaileak haxe salatuko zuen: JDEren aurkezpenaren ostean, CCOOko Koordinakunde Orokorrak, PCEk kontrolatzen zuenak, bertan behera utzi zuela greba orokorrerako egitasmoa. Hori dela-eta, azaroan, MCE Espainiako Mugimendu Komunistaren babesarekin, Euskal Herrira mugatutako deialdia hasi zen prestatzen ORT. Euskal Herriko CCOO berezia zegoen, egitatez, eta irailean larriagotu egin zen egoera, CONE Euskadiko Langile Batzorde Nazionalaren sorrera iragarri zenean. Bizkaiko Herrialdeko Koordinakundeak, Gipuzkoako Biltzar korranteak eta Arabako batzorderen batek edo bestek, denak PCEren gertukoak, osatzen zuten CONE. Eskuinaldeko batzordeak, MCEko, ORTko eta ETA (VI)-LCRko militanteen gehiengoa zutenek, ez zuten ordezkariarik Bizkaiko Herrialdeko Koordinakundean, eta Gipuzkoako Biltzar korranteak PCEk kontrolatutako batzordeak (herrialde horretan gutxiengoa zirenak) besterik ez zituen biltzen. Horrez gain, Nafarroako ordezkari oro ere bazterten zuen CONE, zer eta 1932ko ekainaren 19an lau herrialdeetako udal ordezkariak egindako batzarrean nafar ordezkari gehienek Estatutu Proiektua arbuiatu zutela argudiatuta. Hala ere, bazterketa horren egiazko zergatia zen Nafarroako CCOOn PCEko militanteak gutxiengoa zirela. Dena den, CONE sortu zenetik, berori izan zen Koordinakunde Orokorrak onartutako euskal koordinakunde bakarra.

Donostiako elizbarrutiko Gizarte Idazkaritzaren txostenaren arabera, borroka-egunerako «zenbait proiektu zeuden, oposizioaren talde antolatu ezberdinei zegozkienak», baina preso politikoek gose-grebari ekiteak lastertu egin zuen deialdia, eta modu bateratuan egin zen abenduaren 11rako.

Nafarroako Herrialdeko Koordinakundeak eta Gipuzkoako Herrialdeko Koordinakunde nagusiak egin zuten deialdia, Eskuinaldeko batzordeen zein MCEren, ORTren eta ETA (VI)-LCRren atxikimendua zutela. Errebindikazio-taulak, goraka zihoan inflazioa salatzeaz gainera, erregimenaren oinarriko zutabeak zituen jomugan, eta Euskal Herriko antifrankismoaren

aldarrikapen nagusiak jasotzen zituen: «errepresio-indarrak» zein auzitegi bereziak desegiteko; errepresio frankistaren arduradunei zegokien zigor-erantzukizuna garbitzeko, eta Euskal Herriari zein Espainiako Erresumako estatutik gabeko gainerako nazioei autodeterminazio-eskubidea onartzeko. Borroka-egunaren bezperan CONEK agiri bat plazaratu zuen PCEn agerkarian, honako hau aditzera emanez: «Langile Batzordeek ez dute zerikusirik beren sinadura daraman borroka-egunerako deialdi batekin, frankismoa amaitzeko une historikoarekin bat ez datozen helburuak dituenarekin».

Hartara, deialdiak ehundik gora preso politikok hasitako gose-grebarekin egiten zuen bat; protesta horrekiko elkartasunez bi eguneko greba orokorra, Gipuzkoan kontuan hartzeko moduko oihartzuna jaso zuena, zuen aurrekari; aurreko bi hilabeteetan Bizkaiko lantegi garrantzitsuetan egin eta lorpenen bat ekarria zuten gatazken uberan sortutako borroka-giroari lotzen zitzaion, eta Iruñerriko lantegi nagusietako greba-mugimenduetarekin uztartzen zen.

Poliziaren Bilboko Bulego Nagusiaren barne-dokumentazioaren arabera, honako oihartzun hau jaso zuen protestak: 1.602 enpresatako 76.646 langilek egin zuten greba Gipuzkoan (lan-eroldaren heren bat inguruk); 156 enpresatako 32.000k Bizkaian (%10ek baino zertxobaitek gora), eta Nafarroako 44 enpresatan lanuzteak egin zituzten. *Cambio 16*-en arabera, «lan-iturri ofizialak» aipatuz, 20.000 langilek egin zuten greba Nafarroan, eta Lizarran erabateko geldialdia egon zen. Araban, Gobernu Zibilaren urteko txostenak Okondoko Hygassako lanuztearen berri besterik ez zuen eman, 55 langile grebara batuta. Gobernu Zibilaren beraren beste ohar baten arabera, lanuzte partzialak egin zituzten herrialdeko zenbait iraskaskuntza-zentrotan, goi- zein erdi-mailakotan.

Oposizioaren iturrien arabera, aldiz, 100.000 langilek egin zuten bat protestarekin Gipuzkoan, 80.000k Bizkaian, 18.000k Iruñerrian, eta 5.000k Nafarroako gainerako eskualdeetan. Arabari dagokionez, Laudioko industriagunean lanuzteak egin zituztela besterik ez zuten jakinarazi. *Cambio 16*-ek aipatutako iturrien zenbaketaren arabera, «berrehun mila» langilek «edo gehiagok» egin zuten greba.

Gipuzkoan, Gobernu Zibilaren arabera, grebak Eibarren, Elgoibarren, Ordizian, Beasainen, Zarautzen, Zumaian, Tolosan, Azpeitian, Irunen eta Donostian izan zuen oihartzunik handiena. Irakaskuntzan, herrialdeko zentro guztiek zabaldu zutela jakinarazi zuen Gobernu Zibilak, baina ia ikasle guztiek egin zuten huts. Tolosan, Bergaran, Beasainen, Ordizian, Lazkaon, Oiartzunen eta Lezon, saltoki ia guztiek itxi zituzten, eta %30ek Donostian. Kalekintzei dagokionez, zera jaso zuen Gobernu Zibilak: Azpeitian, langile-elkarretaratze bat egon zela, «200 bat gaztek manifestazio-saioa» egin zutela, eta poliziarekiko liskarrak egon zirela; Donostian, «200 bat lagunek manifestazio azkarra» egin zutela; Tolosan, «saioa» egon zela, eta N-1 errepidea itxi egin zutela, eta, horren ondorioz, 29 lagun atxilotu zituztela. Prentsa klandestinoak jakinarazi zuen Irunen, Erreterian, Zestoan, Zumaian eta Andoainen ere egin zituztela manifestazioak.

Bizkaian, deitzaileen arabera, Durangaldean, Lekeition eta Bermeon orokorra izan zen greba, eta ia orokorra Enkarterrian. Ondarroan, arrantzaleak ez ziren itsasoratu, eta kontserbategietako, tailerretako zein portuko langileek greba egin zuten. Horrez gain, Ugaoko industriaguneko langileek lanuzteak egin zituzten, eta Arrigorriagako tailerretako zein Papelera de Arangurengo langileak batu zitzaizkion grebari. Zornotzan, Izar geldirik egon zen egun osoan, eta Gernikan lanuzte partzialak egin zituzten Astilleros de Muruetan, Astran eta Malta SAN; saltokiak itxi egin zituzten, baina Guardia Zibilak irekitzera behartu zituen tabernen jabeak, nahiz eta geroago itxi zituzten berriz. Bilbo Handian, greba orokorra izan zen Leioan, antolatzaileen esanetan, eta egun osoko lanuzteak egin zituzten Grupo Mecánica de la

Peñan, Astilleros Españolesen, Talleres Deuston, Lauretan, Westinghousen, Astilleros Ruiz de Velascon, Astilleros Celayan, General Eléctrica Españolan eta Astilleros del Cadaguan. Horiez gain, ondoko enpresetan ere lanuzteak egon zirela esan zuten deitzaileek: Artiachen, Consonni-Elorriagan, Oxicorten, Colchón Relaxen, Dragados y Construccionesen, Tubos Reunidosen, Industrial Química de Asuan, Franco-Española de Cableesen, Talleres Alban, Aguirreanean, Talleres San Miguelen, Álvarez Vázquezen, Guinea Hermanosen, Edesan, Talleres Llarren, Icoan, Firestonen, eta Aceros Echevarriak Basaurin zeukan lantegian. Halaber, hainbat bankutako sukurtsaletan ere lanuzteak egin zituztela jakinarazi zuten. Irakaskuntzan, geldialdiak maila guztietan egon zirela esan zuten. Kale-ekintzei dagokienez, *Cambio 16*-ek ondokoak jaso zituen: manifestazioak Sestaon, Txorierrin, Balmasedan, Durangon eta Lekeition, baita barrikadak altxatzen saiatu ere, eta manifestazio-saioa Bilbon.

Nafarroan, Iruñerriko 70 enpresatan egin zituzten lanuzteak, antolatzaileen arabera. Tuteran, Piharren, SKFn eta tailer txikietan egon ziren lanuzteak; Lizarran, Agnin, Canasan eta Renoliten; Irunberrin, Argalen; Tafallan, Luzuriagan eta autopistaren eraikuntza-lanetan; Altsasun, Laminaciones de Lesacan, Fasan eta Pingónen; eta Irurtzunen, Inasan. Horrez gain, goizean elkarretaratzeak egin zituzten Iruñeko hainbat gunetan, piketeak osatzeko; eguerdian eta arratsaldean manifestazioa egiten saiatu ziren etengabe Sarasate Pasealekuan, eta Irurtzunen eta Etxarri-Aranatzen elkarretaratzeak egin zituzten parrokiako elizaren aurrean.

Errepresioari dagokionez, iturri ofizialen arabera, 76 lagun atxilotu zituzten soilik Bizkaian; oposizioak, aldiz, Hegoalde osoan 400 eta 500 lagun artean atxilotu zituztela jakinarazi zuen. Iturri horien arabera, sei zauritu egon ziren borroka-egunean, eta poliziak su erreala erabili zuen manifestarien kontra «gutxienez» Hernanin eta Tolosan.

Borroka-egun honetatik oposizioak nabarmendu zuen ezaugarrietako bat ondokoa izan zen: ordura arte lan-gatazketan zein mobilizazio antifrankistetan parte hartu gabeak ziren populazio-sektoreak batu zitzaizkiola protestari. Donostiako elizbarrutiko Gizarte Idazkaritzaren iritziz, antolatzaileekiko gertutasun gutxi zeukaten gizarte-sektoreak protesta-mugimenduari lotzeko giltzarria zegoeneko 250 preso politiko baino gehiago zeudela izan zen. Nolanahi ere, deialdiak jaso zuen jarraipen zabalak nabarmendu zuen ezker erradikaleko taldeek indar handia zutela euskal langile-mugimenduan, eta PCEk, aldiz, gero eta eragin txikiagoa.

Borroka-egunari buruzko bilana egiteko garaian, zera aitortu zuen Gipuzkoako Gobernu Zibilak, bere urteko txostenean: «ikuspegi errealistatik, [deialdia] arrakastatsua izan zela onartu behar da». Izan ere, borroka-egunaren gainean *Cambio 16* astekariak bere azalean bertan eman zuen epaia ezin argiagoa izan zen: «Euskal Herria: supergreba».

Abenduaren 11tik osteko grebak

Preso politikoaren gose-greba abenduaren 11ko borroka-egunetik gutxira amaitu zen. Lan-protestek, aldiz, jarraitu egin zuten leku batzuetan. Hilaren 11n, Arrasaten, Eskoriatzan eta Aretxabaletan (Gipuzkoa) ez zen lanuzte garrantzitsurik egon, kooperatibetako zuzendaritzek ez ziotelako atxikimendurik eman deialdiari. Hala ere, greba herrialdeko beste eskualde batzuetan nolako oihartzuna jasotzen ari zen zabaldu ahala hasi ziren lanuzteak. Arratsaldean, enpresa handietako eta kooperatiba handietako langile gehienek lanuzteak egin zituzten. Biharamunean, prentsa antifrankistaren arabera, 12.000 langile-erroldatik 10.000k egin zuten greba. Enpresa batzuetan hilaren 13a arte iraungo zuten lanuzteak.

Dena dela, Tolosan izan ziren abenduaren 11z geroztik Gipuzkoan egindako grebarik handienak. Abenduaren 11ko borroka-egunak maiatzean hasitako gatazka berrabiaraztea ekarri zuen. Hartara, deitzaileek nazio-eremuan ezarritako lelo orokorre, aurreko gatazkako aldarrikapenak gehitu zituzkien Tolosako CCOO-k, baita errebindikazio berriak ere: kontratu mugagabea egiteko laneko lehen egunetik, eta lan-arlotik kanpoko beste batzuk, hala nola kutsaduraren aurkako neurriak hartzeko, haurtzaindegiak sortzeko, irakaskuntza doan eskaintzeko, eta ikastolak babesteko. Greba orokorraren biharamunean eskualdeko erreferentziatzko bi enpresak geldirik jarraitzen zuten: Mustadek eta Talleres Emuak. Hurrengo egunetan enpresa gehiagotara zabaldu zen greba, eta urtarrilean bi greba orokor egin zituzten Tolosan, eta Gipuzkoa osora zabaltzeko huts egin zuen saio bat. Gatazkaren unerik gordinenean 900 kaleratu egon ziren, baina, azkenean, kaleraturik gabe bukatu zen auzia, lortutako soldata-igoerak %15ekoak baino handiagoak izan ez baziren ere.

Nafarroan, Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera, 33 enpresatako 8.000 langilek jarraitzen zuten greban, abenduaren 12an; eta urtarrilaren 6an, Gobernu Zibilaren barne-dokumentazioaren arabera, artean 16 enpresatan ari ziren gatazkan, tartean Potasas de Navarra, herrialdeko enpresarik handiena eta jabe Espainiako Industria Institutu Nazionala zuena. Gobernu Zibilak, bere urteko txostenean, idatzi zuen «Potasaseko gaia erruz jorratu zen Ministroen Kontseiluan». Gatazkaren blokeo-egoerak greba orokorrera eraman zuen Iruñerrian, hilaren 15ean, eta liskarrak egon ziren poliziaren eta grebalarien artean. Oposizioaren prentsaren arabera, Foru Aldundiak eta Gobernu Zibilak negoziazio-bidea zabaldu zuten Enpresarien Kontseiluaren bitartez, baina Espainiako gobernuak itxi egin zuen. Hori dela-eta, lanerako buelta enpresaz enpresa negoziatuko zen, eta gatazka 250 inguru kaleraturekin amaitu zen.

Tolosako gatazka luzeak ekarri zuen higadurak eta nafar langile-mugimenduak nozitutako porrot handiak azaltzen dute zergatik urteko gainerako hilabeteetan apenas egon zen mobilizaziorik lan-arloan bi lurralde horietan, non 1976a arte ez zen berriz egongo aipatu auzietan izandako mobilizazio-maila.

Hitzatzea

1974ko abenduaren 11ko borroka-eguna frankismo amaierako aldiaren erregimenaren aurka egindako lehen greba orokor handia izan zen, 1976tik aurrera monarkiaren gobernuen kontra bata bestearen atzetik etorriko zirenen aurrerapena. Deialdiaren arrakastak CONE-n ez zeuden euskal langile-batzordeak koordinakunde bateratu alternatibo bat sortzera bultzatuko zituen: CECO Langileen Batzordeen Euskadiko Koordinakundea, 1975eko apirilean eratu. Abenduaren 11ko borroka-egunak ondokoa ere nabarmendu zuen: Euskal Herrian eta Espainiako Estatuan nagusi ziren erakundeen estrategia politiko sindikalen arteko arrakala, hurrengo urteetan handitzea besterik egingo ez zuena, eta Euskal Herriko eta Espainiako langatazken zifrek soberan erakusten dutena. Horren adierazle nabarmena da Estatu eremuan behin ere ez zela antolatu erregimenaren aurkako izaera agerikoa zuen greba orokorrik, 1974ko abenduaren 11n Euskal Herrian egin zen moduan.

Erabilitako dokumentazioa

Bigarren mailako bibliografia

- Aibar, Marie. 'Le mouvement ouvrier en Guipuzcoa pendant le franquisme'. Université de Pau, Pau, doktoretzatesia, 1981.
- Ibarra, Pedro. *El movimiento obrero en Vizcaya: 1967-1977. Ideología, organización y conflictividad*. EHU, Bilbo, 1987.
- Iriarte, José Vicente. *Movimiento obrero en Navarra (1967-1977). Organización y conflictividad*. Gobierno de Navarra, Iruñea, 1995.
- Letamendia, Francisco (Ortzi). *Historia del nacionalismo vasco y de ETA. ETA en el franquismo (1951-1976)*. R & B, Donostia, 1994.
- Miguel Sáenz, Javier de. 'La 'Organización Revolucionaria de Trabajadores' en Navarra, orígenes y desarrollo, 1964-1977', *Príncipe de Viana*, 16. gehigarria, 1992.

Lehen mailako iturriak

Gobernuko dokumentazioa

- Gobierno Civil de Álava. 'Memoria. Resumen. Orden público 1974', 1974, Archivo Histórico Provincial de Álava / Arabako Artxibo Historiko Probintziala, SUBD, 686.3.
- Gobierno Civil de Álava. 'Memoria de gestión del Gobierno Civil de Álava correspondiente al año 1974', 1975eko apirila, Archivo Histórico Provincial de Álava / Arabako Artxibo Historiko Probintziala, SUBD, 686.2, 4, 23.
- Gobierno Civil de Guipúzcoa. 'Memoria de la provincia correspondiente al año 1974', 1975eko apirila, Archivo Histórico Provincial de Gipuzkoa / Gipuzkoako Probintzia Artxibo Historikoa, 2679/0/1.
- Gobierno Civil de Navarra. 'Memoria correspondiente al año 1975', 21, Archivo General de la Administración, 08, Gobernación, 32/11451. (Floren Aoizi esker ona adierazi nahi nioke, dokumentu honen eta Nafarroako Gobernu Zibilaren beste agiri batzuen bere kopia utzi zizkidalako.)

Prentsa klandestino

- Agencia Popular Informativa*, 52, 1974-06-28; 55, 1974-10-03.
- En Lucha. Órgano Central de la Organización Revolucionaria de Trabajadores*, 14, 1974-11-02; 61, 1975-01-22; 62, 1975-01-29.
- Hitz*, 2, 1975eko martxoa.
- Langile. Euskadi Ta Askatasuna*, 1, 1974ko uztaila, in Equipo de Hordago. *Documentos Y. Lur*, Donostia, 1984, 15. liburukia.
- La Lucha de Clases. Klaseen Burruka. Órgano de la UGT de Euzkadi*, 18, 1975eko urtarrila.
- Lucha Obrera. Órgano de las Comisiones Obreras de la Margen Derecha*, 4, 1974ko abendua.
- Mundo Obrero. Órgano del Comité Central del Partido Comunista de España*, 22, 1974-12-10.
- Oficina Prensa Euzkadi*, 1974-10-08, 1974-12-06; 1974-12-19.
- Zer Egin? Portavoz de la Organización de Guipúzcoa del Movimiento Comunista de España*, 2, 1974ko ekaina; 4, 1974ko azaroa.
- Zer Egin? Portavoz de la Organización de Vizcaya del Movimiento Comunista de España*, 1, 1974ko abendua.

Legezko prentsa

- Cambio* 16, 152, 1974-10/14/20; 160, 1974-12-09/15; 162, 1974-12-23/29.
- El Diario Vasco*, 1974-12-04.
- The Times*, 1974-12-14.

Bestelakoak

Diócesis de San Sebastián, Secretariado Social. 'Informe de las huelgas de diciembre en la provincia de Guipúzcoa', 1975-03-26, Lazkaoko Beneritarren Fundazioa, Eliza.

Diócesis de San Sebastián, Secretariado Social. 'Un intento de interpretación', 1975-05-13, Lazkaoko Beneritarren Fundazioa, Eliza.

Jefatura Superior de Policía de Bilbao. *Boletín Informativo Regional*, 1974-12-08/14, Archivo Histórico del Departamento de Historia Contemporánea de la Universidad del País Vasco.

Ahozko iturriak

Antxon Zubeldia Talleres Emuako langile ohiari elkarrizketa, Lazkao (Gipuzkoa), 2011-12-20.

JAKIN

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29. 20140 ANDOAIN
943 21 80 92 jakin@jakin.eus
www.jakin.eus